

## Berandutze-interesen kalkuluaren adibidea:

Etxebizitza-kontuagatik kendutako kopuruak: ez du betetzen 2020an ohiko etxebizitza erosteko erabiltzeko baldintza.

Bidegabe aplikatutako zenbatekoak itzuli beharko ditu:  $1.000 + 500 = 1.500$  euro

### Berandutze-interesen kalkulua:

- 2018ko PFEZn kendutako zenbatekoagatik: 1.000 euro.**

**Zenbatzen hasteko data:** 2018ko PFEZa borondatez aurkezteko epea amaitu eta hurrengo eguna (2019/06/30): 2019/07/01 (\*)

(\*) Itzultzeko eskubidea ematen duen deklarazioaren kasuan, hura jaso zen egunetik, betiere itzulketaren zenbatekoa kenkaria baino handiagoa edo berdina izan bada. Itzulketaren zenbatekoa kenkaria baino txikiagoa bada, alde horren zenbatekoari dagokion aldia (kenkaria – Itzulketa) borondatez aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egunean hasiko da.

**Zenbaketaren azken eguna:** 2020ko PFEZren aitortpena aurkeztu zen eguna, adibidez:

2021/06/30

2019/07/01etik 2019/12/31ra arteko aldia (184 egun):  $1.000 \text{ euro} \times 3,75 \times (184/365) = 18,90$

2020/01/01etik 2020/12/31ra arteko aldia (366 egun):  $1.000 \text{ euro} \times 3,75 \times (366/366) = 37,50$

2021/01/01etik 2021/06/30era bitarteko aldia (181 egun):  $1.000 \text{ euro} \times 3,75 \times (181/365) = 18,60$

**2018ko kenkariari dagozkion interesak, guztira:**  $18,90 + 37,50 + 18,60 = 75 \text{ €}$

Urte	Kenkariaren zenbatekoa	Urte	interes-tasa
2018	1000	2019	3,75%
2019	500	2020	3,75%
		2021	3,75%

- 2019ko PFEZn kendutako zenbatekoagatik: 500 euro.**

**Zenbatzen hasteko data:** 2019ko PFEZa borondatez aurkezteko epea amaitu eta hurrengo eguna (2020/09/30): 2020/10/01 (\*)

(\*) Itzultzeko eskubidea ematen duen deklarazioaren kasuan, hura jaso zen egunetik, betiere itzulketaren zenbatekoa kenkaria baino handiagoa edo berdina izan bada. Itzulketaren zenbatekoa kenkaria baino txikiagoa bada, alde horren zenbatekoari dagokion aldia (kenkaria – Itzulketa) borondatez aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egunean hasiko da.

**Zenbaketaren azken eguna:** 2020ko PFEZren aitortpena aurkeztu zen eguna, adibidez: 2021/06/30

2020/10/01etik 2020/12/31ra arteko aldia (184 egun):  $500 \text{ euro} \times 3,75 \times (92/366) = 4,71$

2021/01/01etik 2021/06/30era bitarteko aldia (181 egun):  $500 \text{ euro} \times 3,75 \times (181/365) = 9,30$

**2019ko kenkariari dagozkion interesak guztira:**  $4,71 + 9,30 = 14,01 \text{ €}$

### Itzulketa osoa bidegabeko kenkariengatik eta berandutze-interesengatik:

	PFEZ 2018	PFEZ 2019	Irabazia galtzeagatik PFEZ 2020an sartu beharreko igoera
Etxebizitza-kontuaren kenkariak	1.000,00€	500,00€	1.500,00€
Berandutze-interesak	75,00 €	14,01€	89,01 €